

## Egilearentzako jarraibide-oharren orria (*Uztaro* aldizkariarentzat)

*Uztaro* aldizkariaren helburua giza eta gizarte-zientziei buruzko artikulak argitaratzea da. Argitaratuko dituen lanak batik bat honako arloetakoak izango dira: antropologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, pedagogia, filosofia, kazetaritza, soziologia, soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpengintza, ikasketa klasikoak, artea, musika, historia eta geografia. UEUk antolaturiko ikastaro, mintegi edo jardunaldien inguruan sorturiko lanek izango dute lehentasuna *Uztaro* aldizkarian, baina kanpotik bidalitako lanak ere onartuko dira argitaratzeko. Betiere lan berriak izango dira, beste inon argitaratu gabeak.

[Erredakzio Batzordeak](#) erabakiko du zenbaki bakoitzean zer argitaratuko den, artikulak parekoen arteko ebaluazio itsua esaten zaion ebaluazio-prozeduraren bidez aztertu ondoren; gutxienez bi ebaluatzailek egingo diote [Ebaluazio Txostena](#) artikulua bakoitzari, eta gutxienez horietako bat Erredakzio Batzordetik kanpokoak izango da.

### **Bidalketa-baldintzak**

Argitaratu nahi diren lanak honako helbide honetara bidaliko dira:

*Uztaro*. Udako Euskal Unibertsitatea  
Erribera 14, 1. D  
48005 BILBO  
argitalpenak@ueu.eus

Testuak euskarri elektronikoan bidaliko dira: artxibo bat Microsoft Word, Open Office, LibreOffice... edo halako testu-prozesatzaileak erabiliz, eta beste artxibo bat .pdf formatuan. Testuak [Egilearentzako jarraibide-oharretara](#) egokitu beharko dira:

- Egilearen izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, leku agerian.
- Artikularen izenburuaren ondoren, egilearen izenarekin batera argitaratu nahi den aurkezpena ere zehaztuko da, adibidez: X Institutuko ikertzailea, Irakaskuntza Ertainetako irakaslea, idazlea, Y Unibertsitatea, Z Unibertsitateko irakaslea, psikologoa... Kargu ofizial eta akademikoak, zehaztu nahi badira, letra xehez idatziko dira: zuzendaria, euskaltzaina, doktorea...
- *Uztaro* aldizkarian ohikoak diren jakintza-alorretako zeinetan (Pedagogia, Psikologia, Historia, Antropologia, Hezkuntza, Literatura...) argitaratu gura den adieraziko da.
- 10-25 orrialde inguruko artikulak argitaratuko dira (30.000-65.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta), salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.
- Liburu-aipamenak 2-10 orrialde ingurukoak izango dira (6.000-30.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta), salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.
- Tesi-laburpenak gehienez orrialde batekoak (3.000 karaktere, tarte zuriak kontatuta) izango dira, salbuespeneko arrazoiren bat ez bada.

- Lanarekin batera, 100 eta 150 hitz arteko laburpena ere igorriko da, euskaraz eta ingelesez, eta izenburuaren ingelesezko itzulpena. Artikuluari dagozkion gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez bidaliko dira (lau gehienez).
- Artikuluaren izenburuan, egileen aurkezpenean eta artikuluaren laburpenean ezin da oinoharrik jarri.
- Originalak euskara batuaz idatzirik etorriko dira eta Euskaltzaindiak emandako arauetara moldatuta. Aldizkariko hizkuntz zuzentzaileak artikuluaren hizkuntz zuzentasuna ziurtatzeko beharrezko aldaketak egiteko eskubidea izango du, betiere egileari horien berri emanez.

### **Izenburu, atal eta azpiatalen egitura**

- Izenburua, egilearen izena eta aurkezpen laburra, letra xehe lodiz (ortografiak eskatzen dituen letra larriak salbu) idatziko dira, erdian lerrokatuta.
- Atalburuak, letra xehe lodiz jarriko dira, erdian lerrokatuta.
- Azpiatalen buruek ere letra xehe lodia izango dute, baina ezkerrean lerrokatuta egongo dira eta aurrean zenbaki edota letraren bat jarrita.
- Azpiatalen barruko zatien buruak, zenbaki edota letrekin hauek ere, letra xehe etzanez idatziko dira.

## **5. Letra xehe lodiz, erdian lerrokatuta (10 pt)**

### **5.1. Letra xehe lodiz, ezkerrean lerrokatuta (10 pt)**

#### *5.1.1. Letra xehe etzanez, ezkerrean lerrokatuta (10 pt)*

- Zatiak bereziki ugari direnean, zenbaki erromatar eta arabiarrekin, eta letra larri eta xeheekin joka daiteke, buruaren aurrean (1. / 1.1. / 1.1.1. / 1.1.1.a...).

### **Tipografia**

- Testuan ahal den gutxien erabiliko dira letra lodia eta azpimarra.
- Letra etzana (eta ez lodia edo larria) erabiliko da zerbait bereziki nabarmendu nahi denean edo, aipua osatu gabe, beste hizkuntza batzuetako hitzak sartzen direnean euskarazko testuan. Orobat erabilera metalinguistikoak.
- Hitzez-hitzeko aipamenak alboko komatxoaren artean («...») idatziko dira (Word: Alt + 174 (zabaldu) eta Alt + 175 (itxi)). Hitzez hitz aipatutako pasarteak, berez, komatxo arteko zatirik badu jatorrizko testuan, orduan beste komatxo mota bat erabili behar da. Hauxe da komatxo moten maila-antolaketa: «aaa“bbb'ccc'bbb”aaa».
- Hitz solteen edo sintagma laburren itzulpenak emateko inprimategiko komatxo soilak erabiliko dira ('...'), baita esanahia edo adiera azaldu nahi dutenak biltzeko ere.
- Marratxoa (-), marra luzea (—) eta minus zeinua (–) bereiziko dira. Lehena hitz-elkarketetan (eguzki-erloju) eta atzizkietan (-keta) erabili ohi da; bigarrena (Word: Alt + 0151 edo Ctr + Alt + - zenbakizko teklatuan) tartekietan (—...—), eta minus zeinua (Word: Alt + 0150) zenbaki negatiboetan (–5 °C).
- Urteek ez dute punturik (2014ko azaroaren 15a), baina zifrek bai (2.500 €). Zifrak idazteko aukera bat baino gehiago egon arren, honako eredu honi lotuko gatzazkio: milatik gorako

zenbaki osoetan, digituak hiruak multzokatu eta puntuz bereiziko dira; zatiki hamartarrak komaz (15.756.552,172).

## **Bibliografia-eredua**

Jarraian ematen den adibidea *Uztaro* aldizkarian bertan argitaratu behar diren lanek aurkez dezaketen bibliografiaren eredu-proposamena da.

### **Aipuak**

- Beste nonbaitetik harturiko aipamenak, luzeak direnean (hiru lerro baino gehiago), lerrokada berezian emango dira, letra zuzenez, tipo txikiagoan, ezkerreko alboan koska aterata. Itzulpena denean, jatorrizkoa eskaini nahi duenak oin-ohar batean eman dezake alboko komatxoaren artean («...»). Edo nahiago bada, alderantziz.
- Laburrak direnean (hiru lerro edo gutxiago), lerrokada bereizi gabe emango dira, letra zuzenez, alboko komatxoaren artean («...»). Itzulpena denean, jatorrizkoa eskaini nahi duenak oin-ohar batean eman dezake alboko komatxoaren artean («...»). Edo nahiago bada, alderantziz.
- Laburrak zein luzeak izanik ere, aipuak oin-oharren barruan eskaini nahi direnean, lerrokada bereizi gabe emango dira, letra zuzenez, alboko komatxoaren artean («...»).
- Aipuen barruko testu zatiak kendu direla adierazteko, hiru puntu kako zuzenen barruan erabiliko dira ([...]). Testu zatiak aipamenaren hasieran edo amaieran kendu badira, ez da zertan adierazi kako zuzen edota hiru punturen bidez.
- Aipuaren amaierako puntua lanaren erreferentziaren ostean jarriko da.

Adibidez:

Las variantes introducidas por mí son: considerar el roncalés no como subdialecto suletino, sino dialecto, y ver un solo dialecto en el alto nabarro y uno también en el bajo nabarro, teniendo por simples subdialectos el septentrional y meridional del primero y el oriental y occidental del último (Azkue, 1905-1906: 25-27).

### **Oin-oharrak**

- Oin-oharrak orrialdearen oinaldean jarriko dira, eta ez dokumentuaren amaieran.
- Oin-oharren bidaltze-marka puntuazio-markaren aurrean jarriko da (...idatzi zuen<sup>1</sup>). Esaldi bat komatxoekin amaitzen bada eta ostean puntuazio-marka bat badagokio, oin-ohararen bidaltze-marka komatxoaren eta puntuazio-markaren artean joango da «...idatzi zuen»<sup>1</sup>).
- Oin-oharretan ez da erreferentzia bibliografikorik eskainiko.

### **Bibliografia**

Lanak honela agertuko dira, letra zuzenak, lodiak eta etzanak, xeheak eta larriak, parentesiak, komak eta puntuak hemen erakusten den moduan jarritz:

#### **a) Liburua**

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (argitalpen urtea): *Liburuaren izenburua*, Argitaletxea, Edizio-tokia.

Adibidez:

Connor, Walker (1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madril.

### **b) Aldizkari bateko artikulua**

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (urtea): «Artikuluaren izenburua», *Aldizkariaren izena*, zenbakia, orrialdea-orrialdea.

Adibidez:

Agirre, Lorea (2010): «Joxe Azurmendi: “Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok”», *Hegats*, 45, 183-214.

### **c) Bilduma bateko, kongresu bateko agiri-liburuko edo halakoetako artikulua**

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (urtea): «Artikuluaren izenburua», in Editorearen izen osoa Editorearen deitura (arg., ed., zuz., koor. [hala badagokio]), *Bildumaren izena*, Argitaletxea, Edizio-tokia, liburukiaren zenbakia, orrialdea-orrialdea.

Adibidez:

Agirrebaltzategi, Paulo (1998): «Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorkizunean», in Joseba Intxausti (ed.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, UPV-EHU, Leioa, 185-210.

Liburu edo artikuluari buruzko oharrik eskaini behar denean, kako zuzenen artean emango da [...], adibidez faksimilea dela argitzeko, berrargitalpen bat dagoela esateko, argitaratzear dela zehazteko, itzulpena denean jatorrizkoaren izena emateko...

Aipaturiko dokumentua modu elektronikoan ere eskuragarri denean, angelu artean zehaztuko da URLa gainerako informazioaren ondoren: <http://...>. Edo, DOI kodea ezaguna badugu, DOI kode horrek URLa ordezkatzeko du, kako zuzenen artean: [DOI: nnnnn/nnnn.nnnn]

### **d) Dokumentu elektronikoak**

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (argitalpen-urtea): *Dokumentuaren izenburua*, <http://...> (Kontsulta: urtea-hilabetea-eguna).

Adibidez:

Miyagawa, Shigeru (2011): *Agreements that occur mainly in the main clause*, <http://web.mit.edu/miyagawa/www/pdfs/Miyagawa%20Main%20Clause%20Agreement%20V7.pdf> (Kontsulta: 2014-05-01).

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (zinta magnetiko, CD-rom...), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen artean [...].

### **Erreferentziak idazteko jarraibide orokorrak**

**Hurrenkera alfabetikoan** eskainiko da bibliografia, egileen deituren arabera. Autorerik ez dagoen kasuetan, izenburua sartuko da hurrenkera alfabetikoan.

**Alderantzizko koskarekin emango dira erreferentziak** (erreferentzia bakoitzeko bigarren lerroaren eta hurrengo ezkerreko koskak lehenengo lerroarena baino 1,25 cm eskuinerago)

Adibidez:

Agirrebaltzategi, Paulo (1998): «Euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina etorkizunean», in Joseba Intxausti (ed.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, UPV-EHU, Leioa, 185-210.

Miyagawa, Shigeru (2011): *Agreements that occur mainly in the main clause*, <<http://web.mit.edu/miyagawa/www/pdfs/Miyagawa%20Main%20Clause%20Agreement%20V7.pdf>> (Kontsulta: 2014-05-01).

**Egile beraren lanak hurrenkera kronologikoan** eskainiko dira, zaharretik hasita; urte batean lan bat baino gehiago baldin baditu (*urteaa*) izango da lehena, (*urteab*) bigarrena, (*urteac*) hirugarrena...

- Egile biren artean idatzitako lanak honela aurkeztuko dira:

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa eta Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (urtea):

Adibidez:

Amonarriz Gorria, Kike eta Arruti Landa, Iñaki (1998): «Euskararen aldeko Mugimendu Sozialak gaur egun», in J. Intxausti, *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, UPV/EHU, Leioa, 147-184.

- Hiruren artean idatzitakoak honela:

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa; Egilearen deitura, Egilearen izen osoa eta Egilearen deitura, Egilearen izen osoa (urtea):

Adibidez:

Taulé, Mariona; Martí, Antonia eta Recasens, Marta (2008): «Ancora: Multilevel Annotated Corpora for Catalan and Spanish», in *Proceedings of 6th International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC)*, Marrakech, Maroko.

- Hiru egile baino gehiago direnean, lau era hauetako batean aurkeztuko dira:

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa eta beste (urtea):

Egilearen deitura, Egilearen izen osoa *et al.* (urtea):

Zenbaiten artean, (urtea):

Varii, (urtea):

**Oin-oharretan ez da fitxa bibliografikorik eskainiko.** Bibliografian sartu nahi ez den zerbait aipatzeko noizbait horrela egin nahi bada, lehenengoz agertzen denean aipatuko da osorik aipatu beharrekoa, eta hurrengoetan bibliografian balego bezala jokatuko da, edo *op. cit.*, *ibidem...* eta halakoez baliatuz, testu nagusian beti ere, ez oin-oharretan.

Ekidin daitekeen ohar-gehiegikeria saihestearren, egin behar diren **bibliografia-aipamenak ahal dela testu nagusian sartuko dira**, parentesi artean, egilearen deitura (egilearen izena diskurtsoaren parte ez denean), argitalpen-urtea eta bi puntuen ondoren orrialdea(k) zehaztuz adibidez: (Mitxelena, 1961: 45) edo (Mitxelena, 1961: 45-70). Egilearen izena diskurtsoaren parte denean, soilik argitalpen-urtea eta bi puntuen ondoren orrialdeak idatziko dira parentesi artean. Orrialde-zenbakirik ez da jarriko, erreferentzia lan osoari badagokio, adibidez: (Mitxelena, 1961).

Erreferentzia bat baino gehiago eman behar badira, puntu eta komen artean bereiziko dira, eta kronologikoki antolatuta zaharretik berrienera.

Inolako gaztigurik gabe erabil daitezke arlo bakoitzean ohizkoak diren bibliografia-laburdurak. Bestelakorik erabili behar denean lehenengoz erabiltzen denean jakinaraziko da bakoitzaren esanahia; asko direnean artikuluko bukaerako zerrenda batean bil daitezke. Arruntak ez diren sinbolo edo diakritikoak erabiltzen direnean, hauen zerrenda erantsiko zaio artikuluari.

### **Irudiak, argazkiak eta taulak**

Gaiarekin zerikusia duten argazkiak, taulak eta irudiak (ilustrazioak) sartu ahal izango dira. Euskarri informatikoan entregatuko diren irudiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Gutxieneko bereizmena: 300 pp-tik gora, gutxieneko kalitatea ziurtatzeko.
- Irudiaren neurria: 10 x 10 cm-tik gorakoa.
- Artxiboaren formatua: TIFF, EPS edo JPG izango da.

Testu barruko aipamenak erraztearren, zenbatuta joango dira: 1. taula, 2. taula... Orobat adibideak, ugari direnean: (1), (2), (3a), (3b).

Inprimatzeko orduan zuri-beltzean agertuko dira. Era berean, argazki guztiek ondoz ondoko zenbakiak izan beharko dituzte, aurretik edo atzetik 'irudia' hitza (edo horren laburdura) dutela, dagokion oinarekin eta testuan non kokatzen den adierazten dela.

Izan ere, argazkien oinetan, irudiak norberarenak ez badira, ilustrazio horien autorea nor den esan behar da edo behintzat irudien iturria aipatu, hau da, liburua, aldizkaria, katalogoa edo artxiboa den. Hona adibide batzuk:

- 2. irudia. *Bilbao* aldizkaria, 214. zk., 2007ko maiatza, 10. or.
- 3. irudia. Euskomedia Fundazioa. Eusko Ikaskuntza.
- 4. irudia. Hirigintzako artxiboa, Bilboko Udala (dokumentuaren espedientea eta zenbakia zehaztuko dira, bai eta urtea ere, ahal bada).

### **Argitalpenaren prestaketan zenbait ohar**

Hizkuntz zuzentasuna ziurtatzeko edo aldizkariaren aurkezpen-arauetara egokitzeko, onarturiko artikulua aldaketaren bat behar izanez gero, astebeteko epea izango du egileak, Erredakzio Kontseiluaren erantzuna hartzen duenetik, testu zuzendua bidaltzeko idazkaritzara; artikuluebaluatzaileek eskaturiko aldaketa handiagoetarako, hilabeteko epea emango zaio egileari.

Argitaratu baino lehen, gutxienez behin hartuko du egileak bere artikuluen testu maketatua, eta astebeteko epea izango du testu maketatuan behar diren zuzenketak idazkaritzari jakinarazteko.

Jatorrizko lana argitaratzeari edo ez argitaratzeari buruzko erabakia, bai eta alde aurretiko aldaketekin argitaratu ere, gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko da, lana erredakzioan hartzen den unetik hasita.

Erredakzio Batzordeak eta aldizkariaren kolaboratzaileak orokorrean Argitalpenen Etika Batzordeak ([Committeon Publications Ethics](#), COPE) ezarritako Kode Etikoa eta Jardunbide egokiak jarraitzen ditu. UEUko argitalpenek jarraituko duten [Argitalpenetarako Jardunbide Gida](#) kode horretan oinarritzen da.

